



San Migel errotako presia

Herriko zaharrenetarikoa izango zan **San Migel errotia**, orain San Juan kaleko turismo-bulegua dagueen parajian egue-na. Oñatiko jauntxo nagusixena zan, **Gebatarrena**, eta euren patroitzapeian eukain San Migel parrokiako elizgizonekin batera manejaitten euen. Etzan negozio makala, kondepekuak garixak eta artuak han ixoteko obligaziñua izaten euen-eta. Izena hortik etorkixon: parrokiara onduan eguelako eta abadiak be parte eukaillako irabazittan.

Baiña errotiorri eragitten otsan ura batzen eben **presia** askoz gorago zan: **San Martin azpizan**, **Ubao errekan**, honek Olaran errekiarekin bat egitten dauen txoko horretan; **640 metro inguruko ibilbide luzia eukan malatuak** presatik errotaraiño. Dana dala, ondo aprobetxautakua. Izan be, **bost labadero bost**, haundi eta txiki euren puxeta-harrixekin, egozen kanal horren ertzean, makiña bat herritarren erropak garbiketako: **Portalekuan**, **Lekunbarri** eta **Tetuan bittartian**, **Bidebarrietako ortuetan**, **Santa Ana komenturen esparruan** eta **San Juan Kaleko plazatzuan**.

Argazkixan ikusten dogun **presia** **1970 ingurura arte iraun eben**. Orduan aldaketa sakonak izan ziran Portaleku alde horretan. Etxaluze osteko poligonua egin zanian, kale, pasabide eta bidekurtze barrixak zabaldu ziran. Horren ondorixoz, alderdi horrek beste itxura bat hartu eben eta 600 urtetik gora eukan presia orduantxe bota zan. **Gerotxuago ezkutau ziran malatuaren azkenengo aztarrenak**, **Bidebarrieta** eta enparauko etxe-pillia jaso zanian

J. E.

Argazkixa, presia bota aurtxuan, J. L. Plazaolak 1960ko hamarkadan ataratakua izan leike, atzian Lezesarriko etxe barrixak ikusten dira-eta.